

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Azaroak 28  
Ostirala  
Alea: 950  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Hernanin 20 bat emakumek salatzen dituzte tratu txarrak urtean, baina, askoz gehiago joaten dira informazio eske

■ Gizarte laguntzaileen hitzetan tratu txar psikikoak jende askok jasaten ditu eta horiek dira tratu txar fisikoen abiapuntua ■ Arazoren bat duenak Ongintzara jo lezake eta laguntza juridikoa eta psikologikoa ematen da.

GENERO Indarkeriaren Nazioarteko Eguna pasa berri da eta askotan gordean era-maten den arazo honek Hernanin ere bere aurpegiak gordinena azaltzen du. Urtean hogei bat emakumek salatzen dituzte tratu txarrak, baina, askozaz gehiago dira gizarte laguntzaileengana informazio eske inguratzetan direnak. Hernanin emakumeak dira orain artean tratu txarrak salatu dituztenak eta salatza-lera iristerako prozesu luzea jasan izan dute gizarte laguntzaileek Kronikari esan diotenez. "Emakumeak lur jota daudenean salatzen dituzte tratu txarrak, gehiago jasan ezin dutenean".

### Prozesu luzea

Tratu txar fisikoak jasan arteko bidea luzea izaten da eta tratu txar psikologikoak jasaten dituztenak emakume asko izan litzke. Esaten da % 10ak salatzen dituela tratu txarrak baina Hernaniko kausan ez dago jakiterik horrela den. Datuek diote tratu txarrak jasaten dituen jendeak askotan hori ezagutu duela familiar eta erasotzaileak berak ere bai askotan. Beraz, kulturala da arazoa hein haundi batean eta bakoitzak ezagutu duen ereduetara jo-tzen du "gauzak aldatzeko bildurra eta ezintasunagatik". Hernaniko Gizarte laguntzaileek diote hezkuntzan-eta kontuan hartuko dela kultura berri bat sartu beharra, "baina, bestelako bonbardeoera ere haundia da eta askotan telebista ikusten jartzea nahikoa da horretaz konturatzeke".

### Diru falta

Informazioa eskatzen duen



Mertxe Arza eta Olga Beortegi Nafarroako Babes Etxeko arduradunak Hernanin emandako hitzaldian.

**"Askotan erasotzaile eta erasotuak egoera hori bizi izan dute beren familietan.**

### Arazoa kulturala da"

emakumetatik asko etxera bueltatu egiten da, egoera gororra bizitu arren. Arazo parte haundi bat ekonomikoa izaten da, emakume askok nola bizirik ez duelako. Behin denuntzia jartzean laguntza medikua, juridikoa, poliziala eta psikologikoa oso azkarrik dira, eta epaitietako sententziak ere bai orain, juizio azkarren lege berriarekin. Baina, laguntza ekonomikoa lortzeko bidea luzeegia da askotan Gizarte laguntzaileek Kronikari esan

diotenez. Zenbait emakumek etxetik irten egin behar izaten du urgentzia eta hostal batera edo etxe berezietara bideratzen dituzte. Asko eta asko diru iturrik gabe gelditzen dira, ordea, eta hori azkartzea beharrekoa jo dute Ongintzako asistenta sozialek.

### Laguntza eskura

Tratu txarrekin arazoren bat duenak Ongintzara jo lezake eta gizarte laguntzaileekin harremanetan jarri. Informatu eta laguntza juridiko eta psikologikoa bideratzen dute. Laguntza psikologikoa erasotuari eta erasotzaileei ere ematen zaie hala eskatu ezkerro.

**Mertxe Arza: "Bi familiatik batean daude tratu txarrak"**  
Astearte Nafarroako babes

etxeko bi ordezkarik hitz egin zuten Hernanin etxebarruko tratu txarrei buruz. Mertxe Arzaren esanetan datuek erakusten dute bi familiatik batean familiako norbaitek tratu txarrak izan di-tuela. Bere iritziz, gizarte antolaketa jerarkikoa autoritarioa eta desberdintasun sozialak daude etxe barruko indarkeriaren atzean, eta uste du konponbidea ere gizarte eredu aldatzetik etorriko dela.

Arzak azaldu zuen etxebarruko indarkeria ez dutela emakumeek bakarrik sufritzen. Bere datuen arabera, iaz, Estatuan 45 gizonezko suizidatu ziren, bikoteari tratu txarrak emanda gero. Era berean, 50 umek galdu zuten bizia, etxebarruko indarkeriak eraginda. □

**KZ gunea, Internet zerbitzu publikoa gaur inauguratuko dute**

INTERNETEN ibiltzeko zailtasunak dituen jendearentzat KZ gunea ordenadore gela irekiko dute Bi-terin. Inaugurazioa gaur 11:00etan da eta zabalik geldituko da. □

## Euskerazko produktuen katalogoa etxe guztietan

BURUNTZALDEKO Udaletako Euskara Zerbitzuek 16 urte bitarteko gazteentzako euskerazko produktu katalogoa argitaratu dute. Bertan era askotako produktuak daude: liburuak, diskoak, aldizkariak, jokoak, bideoak, helbide elektroniko interesgarriak eta abar. Buruntzaldeko etxe guztietara bidaliko dute katalogoa, jendeak gabonetan zer operitu jakiteko. □

## Etxeraten kontzentrazioa

'GUZTION artean Euskal Presoak Euskal Herriko lemarekin kontzentrazioa deitu du Etxerat elkartea, gaur 20:00etan plazan. Etxeratet dei egin die herniaran guztiei kontzentraziora azaltzeko. Bestalde, Etxerat elkartea gogora arazi du kuotakide egiteko txartelak plazan egongo direla kontzentrazio aurretik, lagunza emateko prest dagoen jendeak bete ditzan. □

## ■ ERRUGBIA

### Hernani liderrak Atletiko San Sebastian hartuko du Landaren

HERNANI errugbi taldea lider dijoa bakar-bakarrik eta bihar Landaren saiatuko da bere atze-koeiko aldea haunditzen. Arratsaldeko 15:30etan, Atletikoren kontra jokatuko du. Hernanik bost partidu jokatu eta bostak irabazi ditu. 10 puntu dauzka, eta atzetzik hiru talde ditu 8na punturekin. □

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Egunero ogia beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487  
20120 Hernani

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK  
**Ezkerro**  
Fruituak  
Bertako produktuak  
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:  
943 33 32 75

Orain helbide berrian gaituzu:  
Antziola 5

**Eguzki perfumeria**

Eguzki  
zure  
denda

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

**Eguzki perfumeria**  
Gure dendan,  
behar dezuna  
daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- Ileapaindegia



Santo Tomas egunean korrikalariak izango dira Karabelen protagonista.

## Karabelgo krossa abenduaren 21ean

■ Txiki eta helduentzako krossa da eta aurten 5garren urtea beteko du.

**KARABELGO** Belkara auzo elkartek antolatuta, Karabelgo Vgarren herri krossa abenduaren 21ean jokatuko da, igandean. Orain arte bezala, heldu eta txikientzako probak izango dira. Korrikalari txikienek 600 metroko karrera izango dute eta helduek 8.300 me-

troko proba izango dute. Aurreneko proba goizeko 10:00etan jokatuko da eta azkeneneko, helduena, 11:00etan.

**Apuntatzeko auzo elkartean** Karabelgo krossean ateratzeko karrera hasi aurrean bertan apuntatu liteke. Aldez aurretik

izena eman nahi duenak Belkara auzo elkartera jo behar du krossaren aurreko astean, 17:00etik 20:00etara (Aingura 1, Karabel).

Krossak CDH Hernani, Udala eta Diputazioaren babes du eta Elurra enpresa da babesle nagusia. □

### JASOTA BEZALA

#### Ostirala 28, Donostian kontzentrazio deia

Gizarte antolamendu desberdin den deialdia arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan Astoria Zinema parean, Amara auzoan. Zergatik?

Funtsean etorkinen aurkako bidegabeko eta krudela den jazarpen politika salatzeko, horren isladapen zuzena eta hainbat eta hainbat ez baharekiko hileta; istoriak, ezberdina, hori Espainia eta Europako beste estatu batzuek daramaten etorkinen zorigaitzko politikaren ondorioa bestetik ez da; atzerriartasun legearen errefor-

marekin okerragotuz.

Beharrezko da begirada solidario berriak jaurtitzea: gizarte justizia, aberastasunaren banaketa, aniztasunaren oinarritutako gizarte batasuna.... milaka etorkinen egoera latzari aurre egin eta eraldatuko dutenak: beren jatorriko herriean dagoen egoeraren biktima zuzenak; ezegonkortasun batean ozta-ozta bizitza derrigortzen dituena. Errepresioak, kanporatzeak, paperen ilegalitateak, estuasun batean bizitza derrigortzen ditu, askotan beraiekin arrazista eta aurkakoa den ingurune batean.

Joxe Elizondo 'Niko'

### ZINEA BITERIN

#### 'La Pelota vasca, la piel contra la piedra' gaur eta 'La leyenda del pirata barba negra' umeentzat

GAUR, bihar eta igandean Julio Medemen *'La pelota vasca, la piel contra la piedra'* dokumentala ikusteko aukera izango da Biterin. Gaur, 22:30etan izango da eta bihar bi saio izango dira: 19:30etan eta 22:30etan. Igandean, 19:30etan izango da. Umeentzako bihar eta etzi, 17:00etan. □

### HITZ BITAN



Asier Garayar elbiak egiten erakusten Txantxangorrin.

#### ✓ TXANTXANGORRI ELKARTEA

**Arrantzako elbiak egiteko ikastaroa.** Asier Garayar arrantzako elbiak egiteko ikastaroa ematen ari da Txantxangorri, eta gaur arituko da bere teknikak erakusten, 17:00etan.

**Ehiza postuak garbitzera bihar.** Txantxangorri elkarretek ehiza postuak eta inguruak garbituko ditu bihar, urtero egiten duen bezala. Zita goizeko 07:00etan egin dute Txantxangorri bertan. Boluntario eta interesatuak zuzendaritzarekin harremanetan jarri.

**Santa Barbarako tiro eremua zabalik.** Txantxangorri elkartek ireki egingo du Santa Barbarako tiro eremua, azaroaren 30etan eta abenduaren 14 eta 27an, baziak eta tiro zale guztientzat. San Silbestreko tiraldia izango da abenduaren 27an.

**Ehiza txapelketako inskripzioa zabalik.** Txantxangorrik 25garren txakur eta guztiko ehiza txapelketa antolatuko du aurten, Epelerreka-Larregain inguruan, abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an. Izen ematea elkartean bertan egin behar da abenduaren 19a baino lehen.

#### ✓ EUSKADIKO KUTXA

**Nekane Lizarretarentzat bainuetxeko egonaldia.** Nekane Lizarreta lasartearriari egokitzen zaio Lekeitioko bainuetxeen asteburua pasatzeko aukera. Euskadiko Kutxak bezeroen artean zozketatu du saria, Hernani Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Lasarteko bolegoetan informazioa euskeraz jasotzeko eskaria egin dutenen artean, hain zuzen ere. Saria azaroaren 21ean eman zuten Juan Mari Bengoetxea Kutxak Lasarten duen bulegoko Zuzendariak, eta Juan Mari Iradi Euskera Batzordeburuak.



Bainuetxeko saria eman zuten unea.

### ZERBITZUAK

#### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- Gauetza: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebral, naturoterapia, masajea, reflexología, auriculoterapia,... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33

Kale animaziorako jendea behar da, gabonetako kampainarako. Mimoa, jokoak, musika, antzerkia eta abar.. Deitu: 943 55 55 19

Jubilazioa dela eta, martxan dagoen arrandegia saldu edo alokatuko genuke prezio onean. Deitu: 943 55 61 83

Lan bila nabilen neska bat naiz. Deitu: 626 91 97 12

Konputagailu portatila saltzen dut, COMPAQ ARMADA 100S, osagarri guztiak, 655437152 (Jon).

**TITAN-ETXE TABERNA**  
**EGUNERO MENUS**

Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46  
Hernani

**ADARRA**  
ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita kalea 11  
Tel. 943 55 04 27  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

Mahai tenisa	Taldeak	Non	Noiz	Pelota	Taldeak	Non	Noiz
Benjamín inak	Langile C-Eizabto A	Kiroldegia	B har09:00	A lebinak	Unum ea A-Langile E	Frontoian	B har15:00
Benjamín inak	Eizabto B-Urumea A	Kiroldegia	B har09:00	A lebinak	Langile E-Eizabto A	Frontoian	B har15:10
Benjamín inak	Langile A-Langile B	Kiroldegia	B har10:00	A lebinak	Langile A-Unum ea D	Frontoian	B har15:20
Benjamín inak	Urumea B-Hm aculada	Kiroldegia	B har10:00	A lebinak	Txintxa-Eizabto B	Frontoian	B har15:30
Benjamín inak	Langile A-Langile B	Kiroldegia	B har11:00	A lebinak	Langile D-Unum ea B	Frontoian	B har15:40
Benjamín inak	Langile C-Urumea A	Kiroldegia	B har11:00	Infantilak	Egape-Langile 2	Frontoian	B har16:40
Benjamín inak	Urumea B-Urumea D	Kiroldegia	B har12:00	Bolebola			
Benjamín inak	Eizabto A-Urumea B	Kiroldegia	B har12:00	A lebin m utilak	La A nunciata-Hm akulada	Donostia	B har11:15
Saskibaloi				A lebin m utilak	San Luis-Langile	Donostia	B har10:30
A lebin m utilak	Urumea A-Urumea B	Kiroldegia	B har09:15	A lebin neskak	Eizabto M-ariaren L	Donostia	B har10:30
A lebin m utilak	Eizabto B-Eizabto A	Kiroldegia	B har10:15	Infan. m utilak	Izukatza-Hm akulada	Donostia	B har10:15
A lebin m utilak	Hm akulada-Langile	Kiroldegia	B har11:15	A lebin neskak	Langile-Eizabto	Kiroldegia	B har11:00
A lebin neskak	La Salte-Unum ea	Donostia	B har12:15	Kadete M utilak	Langile-Fortuna	Kiroldegia	B har11:00
A lebin neskak	La A nunciata-Langile	Donostia	B har13:00				